

ZIUR FUNDAZIOA
AUDITORETZA TXOSTENA
2020KO ABENDUAREN 31N BUKATUTAKO
EKITALDIARI DAGOZKION URTEKO KONTU
LABURTUAK

AUDITORE INDEPENDENTE BATEK EGINDAKO URTEKO KONTUEN**AUDITORETZA-TXOSTENA****ZIUR FUNDAZIOKO*****Patronatu Batzordeko kideei*****Iritzia**

ZIUR FUNDAZIOAren urteko kontu laburtuak auditatu ditugu. Urteko kontu laburtu hauek, 2020ko abenduaren 31ko balantzeak, eta aipatutako datan bukatutako ekitaldiari dagozkion galdu-irabazi kontuak eta memoriak osatzen dituzte.

Gure iritziz, erantsitako urteko kontu laburtuek, arlo esanguratsu guztietan, 2020ko abenduaren 31n ZIUR FUNDAZIOAren ondarearen eta egoera finantzarioaren irudi fidela adierazten dute, baita data horretan bukatu den ekitaldiari dagozkion emaitzena ere, aplikagarria zaion informazio finantzarioaren araudiaren arabera (memoriaren 2 oharrean adierazten dena), bereziki, bertan agertzen diren kontabilitate-printzipioekin eta arauekin.

Iritzia emateko oinarria

Auditoretza lana, Espainian indarrean dagoen kontu-auditoretzaren arautegia jarraituz egin dugu. Gure erantzukizuna, arau horien arabera, Urteko Kontu laburtuen Auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna atalean zehazten da.

ZIUR FUNDAZIOAregandik independenteak gara, Espainiako urteko kontu laburtuen auditoretzan jarraitu beharreko etika eskakizunen arabera, independentzia eskakizuna barne, urteko kontuen auditoretzaren arautegian xedatutakoarekin bat. Zentzu horretan, ez dugu kontuen auditoretza ez den beste zerbitzurik eman, eta ez da gertatu aipatutako araudi-erregulatzailaren arabera ezinbestekoa den independentzia arriskuan jarri zezakeen inolako egoerarik.

Lortu dugun auditoretza-ebidentziarekin, iritzia emateko oinarri nahikoa eta egokia dugula uste dugu.

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak

Auditoretzaren alderdirik garrantzitsuenak, gure iritzi profesionalaren arabera, egungo urteko kontu laburtuen auditoretzan hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsuenak bezala hartutakoak izan dira. Arrisku hauek, gure auditoretzaren testuinguruan eta urteko kontu laburtuen osotasunean hartu dira kontuan, baita horiei buruzko gure iritzian ere, eta ez dugu arrisku hauei buruzko iritzi bereizirik ematen.

Gure txostenean aipatu beharreko hutsegite esanguratsuak egoteko arrisku esanguratsurik ez dagoela ondorioztatu dugu.

Urteko kontuen inguruan, patronatuko presidentaren erantzukizuna

Patronatuko presidentaren erantzukizuna da erantsitako urteko kontu laburtuak egitea, ZIUR FUNDAZIOAren ondarearen, egoera finantzarioaren eta emaitzen irudi fidela adieraziz, sozietateari aplikatu behar zaion Espainian indarrean dagoen informazio finantzarioren araudia jarraituz. Baita iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez daukaten urteko kontu laburtuak prestatzeko beraien ustez egokiena den barne kontrola ere.

Urteko kontu laburtuak prestatzean, patronatuko presidentaren erantzukizuna da funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko ZIUR FUNDAZIOAk duen gaitasuna balioztatzea. Horretarako, dagokionaren arabera, funtzionamenduan dagoen entitatearekin zerikusia duten gaiak adieraziko dituzte funtzionamenduan dagoen entitatearekin kontabilitate-printzipioa erabiliz; salbuespena izango da patronatuko kideak entitatea likidatzeko edo eragiketak amaitzeko asmoa dutenean, edo beste aukera errealistarik ez dagoenean.

Urteko kontuen auditoretzaren inguruan, auditorearen erantzukizuna

Gure helburuak hauek dira: urteko kontu laburtuek, osotasunean hartuz, iruzurrengatik edo errakuntzengatik hutsegite esanguratsurik ez duten arrazoizko segurtasuna lortzea eta, gure iritzia barneratzen duen auditoretza-txostena igortzea.

Arrazoizko segurtasuna lortzea segurtasun maila altua da, baina ez du bermatzen Espainian indarrean dagoen urteko kontuen auditoretza jardueraren araudia jarraituz egindako auditoretzak existitu daitekeen hutsegite esanguratsu bat beti antzeman dezakeenik. Hutsegiteak iruzurrengatik edo errakuntzengatik sor daitezke, eta materialtzat hartuko dira, bai banaka bai batuta hartuta, urteko kontu laburtuetan oinarrituz erabiltzaileek hartzen dituzten erabaki ekonomikoetan arrazoiki eragiten dutela aurreikusten bada.

Espainian indarrean dagoen kontuen-auditoretzaren arautegia jarraituz egindako auditoretza lan guztian, eszeptizismoz eta irizpen profesionala aplikatuz jardun dugu. Baita ere:

- *Urteko kontu laburtuetan, iruzurrengatik edo errakuntzengatik, hutsegite esanguratsuak egoteko arriskuak identifikatu eta balioztatu egiten ditugu; arrisku horiei erantzuna emateko prozedurak diseinatzen eta aplikatzen ditugu; eta ebidentzia nahikoa eta egokia lortzen dugu gure iritzia emateko oinarria izateko. Iruzurragatik gerta daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzemateko arriskua, errakuntzagatik eman daitekeen hutsegite esanguratsua ez antzematekoa baino altuagoa da, izan ere iruzurrak kolusioaren, faltsutzearen, nahita egindako ez-egitearen, nahita egindako adierazpen okerren, edo barne-kontrolaren saihespenaren ondorioz izan daitezke.*
- *Auditoretzarako garrantzitsua den barne-kontrolaren ezagupena lortzen dugu, egoeraren arabera egokiak diren auditoretza-prozedurak diseinatzeko helburuarekin; eta ez, erakundearen barne-kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko helburuarekin.*
- *Aplikatutako kontabilitate-politikak egokiak diren balioztatzen dugu; baita kontabilitate-estimazioen arrazoigarritasuna eta patronatuko presidenteak emandako informazioa ere.*
- *Patronatuko kideek funtzionamenduan dagoen enpresaren kontabilitate-printzipioa egoki erabili duten ondorioztatzen dugu; eta lortutako auditoretza-ebidentzian oinarrituz, funtzionamenduan dagoen enpresa bezala jarraitzeko ZIUR FUNDAZIOAk daukan gaitasuna zalantzan jar dezakeen gertaera edo baldintzekin zerikusia duen ziurgabetasun esanguratsurik dagoen edo ez ondorioztatzen dugu. Ziurgabetasun esanguratsua dagoela ondorioztatzen badugu, gure auditoretza-txostenean urteko kontu laburtuetan honi buruz ematen den informazioari arreta jarri behar diogu edo, emandako informazioa ez bada egokia, iritzi-aldatua eman behar dugu. Gure ondorioak, auditoretza-txosteneko datara arte lortutako auditoretza-ebidentzian oinarritzen dira. Hala ere, etorkizuneko gertaeren edo baldintzen ondorioz, ZIUR FUNDAZIOAk funtzionamenduan dagoen entitate izatez utz dezake.*
- *Urteko kontu laburtuen aurkezpen globala, egitura eta edukia balioztatzen dugu, emandako informazioa barne; baita urteko kontu laburtuek transakzioak eta hauen inguruko gertaerak irudi fidela erakusteko moduan jasotzen dituzten ere.*


Fundazioko patronatuarekin harremanetan jartzen gara, besteak beste, planifikatutako auditoretzaren irismena eta egite datak, eta auditoretzan azaldutako arlo esanguratsuak jakinarazteko, baita barne-kontrolean antzemandako balizko gabezia esanguratsuak jakinarazteko ere.

Patronatuko kideei jakinarazten zaizkien arrisku esanguratsuen artean, egungo urteko kontu laburtuen auditoretza txostenean kontsideratu beharreko arrisku esanguratsurik ez dagoela ondorioztatzen dugu.

Arrisku esanguratsuen existentzia eza kontsideratuz, aurreko atalean aipatu bezala, ez da hauen azalpenik emango txostenean.

SAYMA AUDITORES, S.L

(ROAC S2156)



Edo.: Andoni Arzallus Mendiluce
(Nº ROAC 09346)

Donostian, 2021ko apirilak 28

ZIUR FUNDAZIOA**C.I.F. G-75203067****2020KO ABENDUAREN 31KO LABURTUTAKO
URTEKO KONTUAK**

Jabier Larranaga Garmendia jauna
Presidentea



LABURTUTAKO URTEKO KONTUAK – 2020 EKITALDIA

- **Laburtutako Egoera-Balantzea**
- **Laburtutako Emaiza-Kontua**
- **Laburtutako Memoria.**

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidente

LABURTUTAKO EGOERA BALANTZEA

2020 ekitaldia

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

ZIUR FUNDAZIOA

2020/12/31 RI DAGOKION EGOERA BALANTZEA

ACTIVO	MEMORIAKO NOTAK	2020	2019
A) AKTIBO EZ ARRUNTA		832.014,32	514.975,25
I. Ibilgetu ukiezina	5	51.746,69	36.422,97
III. Ibilgetu materiala	5	776.092,79	474.377,44
V. Epe luzeko finantza-inbertsioak	6	4.174,84	4.174,84
B) AKTIBO ARRUNTA		973.568,29	982.742,92
IV. Merkataritza-zordunak eta beste batzuk	9	-	866.087,00
V Epe laburreko periodifikazioak		49.731,00	
VIII. Eskudirua eta bestelako aktibo likido baliokideak	6	923.837,29	116.655,92
AKTIBOA GUZTIRA (A+B)		1.805.582,61	1.497.718,17

PATRIMONIO NETO Y PASIVO	MEMORIAKO NOTAK	2020	2019
A) ONDARE GARBIA		1.555.344,41	1.418.181,52
A-1) Fondo propioak			
I. Fundazioaren zuzkidura / Fondo soziala		30.000,00	30.000,00
1. Fundazioaren zuzkidura / Fondo soziala	8	30.000,00	30.000,00
IV. Ekitaldiko soberakina(*)	3	-	-
A-3) Jasotako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	1.525.344,41	1.388.181,52
B) PASIBO EZ-KORRONTEA		550,00	550,00
II. Epe luzeko zorrak.	7	550,00	550,00
3. Epe laburreko beste zor batzuk.		550,00	550,00
C) PASIBO ARRUNTA		249.688,20	78.986,65
III. Epe laburreko zorrak	7	39.236,34	20.300,05
3. Epe laburreko bestelako zorrak		39.239,34	20.300,05
VI. Hartzekodun kometzialak eta ordaintzeko bestelako kontuak	7	210.451,86	58.686,60
2. Hainbat hartzekodun		210.451,86	58.686,50
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA (A+B+C)		1.805.582,61	1.497.718,17

Irakurri erantsitako memorian jasotako azalpen-oharrekin

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

LABURTUTAKO EMAITZA- KONTUA

2020 ekitaldia

Jabier Larranaga Garmendia jauna
Presidenteak

ZIUR FUNDAZIOA

2020/12/31 -KO EKITALDIARI DAGOKION EMAITZEN KONTUA

	NOTAK	2020	2019
A) Ekitaldiko soberakina			
1. Berezko jardueragatik lortutako diru-sarrerak	10	631.997,01	345.483,32
d) Ekitaldiko sobreakinari egotzitako diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak		631.997,01	345.483,32
8. Pertsonal-gastuak	10	(287.446,42)	(221.356,77)
9. Jarduerako bestelako gastuak	10	(344.550,59)	(124.126,55)
10. Ibilgetuaren amortizazioa	10	(100.090,62)	(58.725,47)
11. Ekitaldiko soberakinera eramandako kapitaleko diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak	11	100.090,62	58.725,47
A.1) JARDUERAREN SOBERAKINA (1+2+3+4+5+6+7+8+9+10+11+12+13)		-	-
14. Finantzako diru-sarrerak		--	--
15. Finanatzako gastuak		--	--
A.2) ERAGIKETA FINANTZARIOEN SOBERAKINA (14+15+16+17+18)		-	-
A.3) ZERGAK APLIKATU AURREKO EMAITZA (A.1+A.2)		-	-
A.4) Ekitaldiko soberakinean onartutako ondare garbiaren aldaketa (A.3+19)		-	-
B) Ondare garbiari zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuak			
1. Jasotako diru-laguntzak	11	237.253,51	520.603,68
B.1) Ondare garbian zuzenean aitortutako ondare garbiaren aldaketa diru-sarrera eta gastuengatik (1+2+3+4)		237.253,51	520.603,68
C) Ekitaldiko soberakinari birsailkapena			
1. Jasotako diru-laguntzak		(100.090,62)	(58.725,47)
C.1) Ekitaldiko soberakinari birsailkapenengatik aldaketa ondare garbian (1+2 +3+4)		(100.090,62)	(58.725,47)
D) Ondare garbian zuzenean atxikitutako diru-sarrera eta gastuengatik aldaketak ondare garbian (B.1+C.1)		137.162,89	461.878,21
G) Fundazioaren zuzkiduran aldaketak		--	--
I) EMAITZA GUZTIRA, ONDARE GARBIAREN ALDAKETA EKITALDIAN (A.4 +D+E+F+G+H)		137.162,89	461.878,21

Irakurri erantsitako memorian jasotako azalpen-oharrekin

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

LABURTUTAKO MEMORIA

2020 ekitaldia

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea



FUNDACIÓN ZIUR FUNDAZIOA

1.Oharra.- Fundazioaren jarduera

2018ko uztailaren 10ean, Ziur Fundazioaren izendapenarekin, Gipuzkoako Foru Aldundi Txit Gorenak eta Donostiako Udal Txit Gorenak Fundazio bat eratu zuten, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearekin bat etorritik, denbora mugagabez. Horren identifikazio fiskalaren zenbakia G75203067 da.

Fundazioa erakunde pribatu bat da, irabazteko asmorik gabe eraturia, eta bere fundatzaileen borondateari jarraiki, bere ondarea interes orokorreko helburu batzuk egiteko xedatua du iraunkorki. Horrela, Gipuzkoako Lurralde Historikoak ekoizpen aurreratuaren alorrean eta zibersegurtasun industrialaren alorrean bereziki dituen gaitasunak indartzea da Fundazio honen helburua, eta horrez gain, sektore teknologikoaren garapena sustatzea eta Gipuzkoako enpresek eta, bereziki, industria-sektorekoek nazioartean duten lehiakortasuna eta posizionamendua indartzea. Hain zuzen ere:

- a) Zibersegurtasunaren alorrean ezagutzak sor daitezela bultzatzea.
- b) Eragileak, enpresak eta industriak sentsibilizatzea eta prestatzea.
- c) Zibersegurtasunarekin loturiko jarduerak enpresetan zabaltzea eta horrelakoak ezar ditzatela ahalbidetzea.
- d) Aurrea hartzeko eta esku hartzeko erremintak eskaintzea.

Fundazioaren helburuak erdiesteko, ondorengo jarduerak egin ahal izango ditu Fundazioak:

- a) Ikerketak eta ezagutzak sortzea eta transferitzea sustatu ahal izango du Zibersegurtasun Industrialaren Zentro Aurreratu bat sortuz, eta halaber, produktu, prozesu eta zerbitzuen ikerketarako eta ziurtapenerako laborategi bat eratu dadila bultzatuko du, baita zibersegurtasun industrialaren alorreko ikerketak ere.
- b) Bereziki industriako eragileen eta profesionalen sentsibilizazioa eta prestakuntza helburutzat duten jarduerak garatuko ditu, besteak beste, kanpaina teknikoak, mintegiak, hitzaldiak eta foroak antolatuz, heziketa-material bereziak sortuz, laguntzaile akademikoekin foro akademikoak eta ikastaroak eratzuz, eta halaber, zibersegurtasunaren alorrean sentsibilizazioa eta prestakuntza sustatzeko xedea duten bestelako jardunaldiak.
- c) Zibersegurtasunarekin loturiko jokabide egokiak zabaldu eta finkatzea xedetzat duten kanpainak eta jarduerak bultzatuko ditu, informazioa zabalduz, teknologiaren behatoki bat finkatuz eta metodologiak zehaztuz eta garatuz. Aurrea hartzeko eta esku hartzeko erremintak garatu eta horrelakoen garapena sustatu du, balizko segurtasun-ezen aurrean egoki erantzungo dela ziurtatzearren, diagnostikoak egiteko erremintak eskainiz, gidak prestatuz, ezbeharrei emandako erantzunak koordinatuz eta alerta eta ohartarazpenerako zerbitzuak garatuz. Ziur Fundazioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren baliabide propio pertsonifikatuaren izaera du, eta haiek enkarguak eman ahal izango dizkiote, kontratuen kontsiderazio juridikorik eduki gabe, kasu bakoitzean dagozkion organoek erabakitzen dituzten hitz eta baldintzetan, eta Herri Administrazioei aplikagarri zaien erregimen juridiko eta administratiboarekin bat etorritik.

Fundazioak ezingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak antolatzen dituzten lehiaketa publikoetan parte hartu, nahiz eta, beste inolako lehiatzailezik ez dagoen kasuetan, horien xede den prestazioa gauzatu dezala eskatu ahal izango zaion.

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidente

Fundazioaren helbidea Donostiako Zuatzu Industrialdeko a. Urola Eraikina, 1. solairua da.

Fundazioak Gipuzkoako Lurralde Historikoan burutuko ditu nagusiki bere jarduerak, nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako lurraldeetara ere hedatu ahal izango dituen.

2018ko azaroaren 12an Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publikoko eta Autogobernuko Sailburuak erabaki zuen "Fundación Ziur Fundazioa" Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzea f-436 erregistro-zenbakiaz.

Fundazioak ez ditu ikuskatze-baldintzak betetzen, ondoz ondoko bi ekitalditan ez baititu bi baldintza bete, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 2ko 9/2016 Legearen 33. artikuluan zehaztutakoaren arabera. Dena den, kontuen kanpo-ikuskapena egiten du, erakunde publikoen aldetik 600.000 eurotik gorako dirulaguntzak jasotzen dituenek, horretarako obligazioa baitu.

Ekitaldi ekonomikoa 2020/01/01an hasi eta 2020/12/31n amaitu da.

2.Oharra.- Urteko kontuak aurkezteko oinarriak

1. Irudi leiala

Honekin batera doazen 2020. ekitaldiko Urteko Kontuak Fundazioak 2020ko abenduaren 31n zituen kontabilitate-erregistroak abiapuntutzat hartuta prestatu dira, eta bertan, irabazi asmorik gabeko entitateak Kontabilitate Plan Orokorrari egokitzeko arauak onartzen dituen 1491/2011 Errege Dekretuan jasotako kontabilitate-printzipioak eta balioespen-irizpideak aplikatu dira, halaber, 2013ko martxoaren 26ko ICACen ebazpena, Entitateen Kontabilitate Plana onesten duena, baita kontabilitate alorrean indarrean dauden gainerako lege-xedapenak ere, eta horiek Fundazioaren ondarearen, finantza-egoeraren eta emaitzen irudi leiala erakusten dute.

Urteko Kontu hauek, Egoera Balantzea eta Emaizten Kontua eta Memoria osatzen dituzten agirietan jasotako zenbakiak euroetan dezimalekin adieraziak daude.

Irudi leial hori erakusteko orduan ez da salbuespenezko arrazoirik egon kontabilitate alorreko lege-xedapenak ez aplikatzeko.

Honekin batera doazen Urteko Kontuak Patronatuaren Batzordeak onetsi beharko ditu, eta inolako aldaketarik gabe onetsiak izatea espero da.

2. Aplikatu diren nahitaezko kontabilitate-printzipioak

Nahitaez aplikatu beharrekoak diren eta honekin batera doazen finantza-egoeretan eragin nabarmena duten kontabilitate-printzipio eta arau guztiak hartu dira kontuan. Ez dago inolako kontabilitate-printzipiorik, nahitaezkoa izanik aplikatu ez denik.

3. Zalantzaloratzearen eta zenbatestearen alderdi kritikoak

Fundazioak funtzionamenduan dagoen enpresaren printzipioa oinarritzat hartuta egin ditu bere finantza-egoerak, COVID-19aren gaur egungo egoera kontuan hartuta eta hark ekonomian oro har eta Fundazioan bereziki izan ditzakeen ondorioak ahaztu gabe. Horrela, bada, esan dezakegu ez dagoela jarduerarekin jarraitzeko arriskurik, memoria honen 15. oharrean zehazten den bezala, eta beraz, ez dago hurrengo ekitaldiko aktibo eta pasiboen balioan aldaketa esanguratsuak eragiteko arrisku garrantzitsurik.

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidentea

Honekin batera doazen urteko kontuetan Patronatuko kideek egindako estimazioak erabili dira inoiz edo behin, bertan erregistratuta ageri diren aktibo, pasibo, diru-sarrera, gastu eta konpromisoetako batzuk zenbatzeko. Funtsean, estimazio horiek aktibo materialen bizitza erabilgarriari buruzko estimazioak dira.

Baliteke estimazio horiek, urteko kontu hauek egin ziren egunean aztertutako gertaerei buruz eskuragarri zegoen informazio onenaren arabera egin arren, etorkizunean izan daitezkeen gertaera batzuen ondorioz hurrengo ekitaldietan aldatu behar izatea (gorantz nahiz beherantz), baina hori aurrera begira egingo litzateke, etorkizuneko galera eta irabazien kontuetan estimazio-aldaketa horrek dituen ondorioak aitortuz.

4. Informazioa alderatzea

Kontabilitate Planean ezarritako betebeharraren ondorioetarako, eta uniformetasun-printzipioa eta konparagarritasun-baldintza aplikatetik eratorritako ondorioetarako, 2020ko ekitaldiari dagozkion urteko kontuak aurreko ekitaldiaren kontuekin batera aurkezten dira.

5. Hainbat kontu-sailetan jasotako elementuak

Ez da aurkezten balantzearen bi kontu-sailetan edo gehiagotan erregistratutako ondare-elementurik.

6. Kontabilitate-irizpideetan izandako aldaketak

Ekitaldian ez da aldaketarik izan kontabilitate-irizpideetan.

7. Akats zuzenketa

2020ko ekitaldiko urteko kontuetan ez da sartu 2019 ekitaldiko zifretan antzemandako akatsen ondorioz egindako doikuntzarik.

3. Oharra.- Ekitaldiko Soberakina aplikatzea

2020ko ekitaldiko emaitza hutsaren hurrengoa izan da; beraz, ezin da banatu.

4. Oharra.- Erregistrorako eta balioespenerako arauak

Ekitaldirako urteko kontuak prestatzeko orduan Fundazioak erabilitako balioespen-arau nagusiak, indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, ondorengo hauek izan dira:

1. Ibilgetu materiala eta ukiezina

Ibilgetu materiala bere eskurapen-kostuaren arabera balioetsia dago, Balio Erantsiaren gaineko Zerga barne.

Konponketa eta mantentze-lanen gastuak horiek gauzatzen diren ekitaldiko emaitzen kontura erregistratzen dira.

Jabier Larranaga Garmendia jauna
Presidente

Amortizazioa linealki kalkulatzen da kostu-balioen gainean, ehuneko nahikoak erabiliz eta indarrean dagoen legeriarekin bat etorritik, aktiboak beren bizitza erabilgarrian barrena amortizatu daitezkeen.

Aplikatu beharreko ehunekoak hauek dira:

Ibilgetu ukiezina % 20

Instalazioak % 15

Informazioaren prozesaketarako ekipoa % 25

Beste instalazioak % 10

Altzariak % 15

Beste ibilgetu material bat % 10

2. Aktibo eta pasibo Finantzieroak

Fundazioak mugaegunaren arabera sailkatzen ditu bere zorrak, eta epe laburreko zortzat hartzen ditu 12 hilabetetik beherako mugaeguna duten zenbatekoak.

a) Finantza-aktiboak:

Finantza-aktibo bat era askotako aktiboa izan daiteke: eskudirua, beste enpresa bateko ondare-tresna bat, eskudirua eta beste finantza-aktibo bat jasotzea eragiten duen kontratuko eskubide bat edo hirugarrengoei aldeko baldintza egokietan finantza-aktiboak edo -pasiboak trukatzeko eragiten duena.

Ondorengo sailkapen honen eginkizuna Sozietatearen finantza-aktiboen balioespena egitea da:

Eskudirua eta beste baliabide likido baliokide batzuk:

Honekin batera doan egoera-balantzearen epigrafe honen azpian kutxa eta bankuetan dagoen eskudirua, ageriko gordailuak eta likidezia handiko epe laburreko beste inbertsio batzuk, kutxan berehala gauzatu daitezkeenak eta beren balioan aldaketarik gertatzeko arriskurik ez dutenak, erregistratzen dira.

Maileguak eta kobratzeko dauden kontu-sailak

Epe laburreko mugaeguna dutenak eta kontratuko interes-tasarik ez dutenak, baita langileei onartutako aurrerapen eta kredituak, kobratu beharreko dibidenduak eta ondare-tresnen gainean ezinbestekoak diren gastuak ere, beren balio nominalaren arabera balioetsiko dira.

b) Finantza-pasiboak:

Jaulkitako, sorrarazitako edo bere gain hartutako finantza-tresnak finantza-pasibotzat sailkatuko dira, osorik edo horien zati bat, betiere horien errealitate ekonomikoarekin bat etorritik enpresarentzat kontratu-betebehar bat badira, zuzenean edo zeharka, eskudirua edo bestelako finantza-aktiboren bat emateko, edo finantza-aktiboak edo -pasiboak potentzialki onuragarriak ez diren baldintzetan trukatzeko.

Sozietatearen finantza-pasiboen balioespena ondorengo sailkapenari jarraiki egingo da:

Zorrak eta ordaindu beharreko kontu-sailak

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidente

Epe laburreko mugaeguna duten eta kontratuko interes-tasarik ez duten merkataritza-eragiketak, horien zenbatekoa epe laburrera ordaintzea espero denean, beren balio nominalaren arabera balioetsiko dira.

3. Balio erantsiaren gaineko zerga

Fundazioa bazkide-izaerako establezimendu pribatua da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren araudi fiskala Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 37/92 Legea egokitzen duen 102/92 Foru Dekretuko 20. artikulua, bat, 9. eta 12. apartatueta jasotako salbuespenak aplikatzen zaizkio, hezkuntza eta prestakuntza arloko zerbitzuen prestazioetarako, aipatutako Foru Dekretu horretako 20. artikulua, bat, 9. apartatuari jarraiki. Era berean, entitateak zuzenean bere kideei egindako eta bere berariazko helburuak lortzeko burututako zerbitzugintzak eta hauen eranskinak diren ondasun-emateak horri lotuak eta salbuetsiak egongo dira, aipatutako 102/92 Foru Dekretu horretako 20. artikuluko bat 12. apartatuan ezarritako hitzetan. Halaber, horri lotuak eta ez-salbuetsiak izango dira barne-eragiketen salbuespena arautzen duen 20. artikuluko bat apartatuan jaso ez diren edo zerrendatuak ez diren gainerako eragiketa guztiak. Horrenbestez, Fundazioak Balio Erantsiaren gaineko Zerga jasaten du eta ez du kenkaririk egiten, eta beraz, inbertsio-ondasunen edo zirkulatzailearen eskurapen-prezioaren zati da, baita zerga horrek zergapetutako eragiketen xede diren zerbitzuena ere (9. Oharra); hala, hainbanaketaren araua aplikatuko da, betiere kenkaria egiteko eskubidea sorrarazten duten zerbitzuen prestazioak eta aipatutako eskubide hori gauzatzea ahalbidetzen ez duten beste eragiketa batzuk batera eginez gero.

4. Sozietateen gaineko zerga

Irabazi asmorik gabeko entitateen zerga-erregimenari eta mezesnasgoaren aldeko zerga-pizgarrii buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauari lotua dago Fundazioa. Fundazioak Sozietateen gaineko Zergatik salbuetsita ditu erakundearen helburuetan laguntzeagatik jasotako errentak, ondare-zuzkidura kontzeptupean egindako ekarpenak edo dohaintzak ere barne; bazkideek, kolaboratzaileek edo ongileek ordaindutako kuotak; diru-laguntzak; erakundearen ondare higigarri eta higiezinetik datozen errentak, hala nola sozietateen irabazietan izandako partaidetzak eta dibidenduak, interesak, kanonak eta alokairuak; eskurapen edo eskualdaketatik datozen errentak, ondasun edo eskubideen edozein titulurengatik, eta zerga-araudiarekin bat etorritik, erakundeari esleitzen zaizkionak eta aurreko errenta salbuetsi horietakoren batetik datozenak.

Sortutako gainerako errentak 3/2004 Foru Arauaren 12. artikuluekin bat etorritik ordainduko dute zerga, % 10eko zerga-tasaren arabera.

5. Diru-sarrerak eta gastuak

Diru-sarrerak eta gastuak sortzapean-irizpidearen arabera egozten dira, hau da, horiek ordezkatzeko dituzten ondasun eta zerbitzuen korrante erreala sortzen denean, horietatik ondorioztatzen den moneta- edo finantza-korrontea zein unetan sortzen den kontuan izan gabe. Nolanahi ere, zuzenbidearen printzipioari jarraiki, Fundazioak ekitaldiaren itxiera-egunean gauzatutako irabaziak bakarrik kontabilizatzen ditu, eta aldiz, bai aurreikus daitezkeen arriskuak eta bai galerak ere, baita unean unekoak ere, ezagutu bezain laster kontabilizatzen dira.

6. Ingurumen-izaera duten ondare-elementuak

Patronoek berretsi dute Fundazioak ez duela ingurumen izaerako erantzukizunik, gasturik, aktiborik, ezta hornidurarik eta kontingentziarik ere, beraren ondarearekin, finantza-egoerarekin eta emaitzekin loturik esanguratsuak izan daitezkeenik.

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidente

7. Diru-laguntzak, dohaintzak eta legatuak

Kapitaleko diru-laguntza ez-itzulgarriak, hortaz, emandako zenbatekoaren arabera balioesten dira, eta hastapenez ondare garbiari zuzenean egozten zaizkion diru-sarreratzat hartzen dira eta diru-laguntza horien bidez finantzatzutako aktiboek epealdi horretan izandako balio-galeraren proportzioan egotziko dira emaitzetan, balio-galerarik izan ezin dezaketen aktiboak izan ezean, eta azken kasu honetan, inbentarioan horien baja edo inorenganatzea gertatzen den ekitaldiko emaitzari egotziko zaizkio.

Diru-laguntzak gastu bereziak finantzatzeko ematen direnean, diru-sarreratzat hartuko dira finantzatzen ari diren gastuak sortzen diren ekitaldian.

Erakunde publikoetatik, defizitaren konpentsazio bidez patronoetatik eta beste batzuetatik jasotakoak diru-laguntza, dohaintza eta ustiapen-legatuen artean barneratuko dira ekitaldiko diru-sarrera gisa beren sortzapenaren arabera, eta bereizi egingo dira, batetik, fundazioaren berezko jarduerarekin loturik daudenak, horiek jardueraren diru-sarreratzat barneratuz, eta bestetik, merkataritza-jarduerarekin loturik daudenak, beste diru-sarrera gisa barneratuz.

5.Oharra.- Ibilgetu materiala eta ukiezina

2020ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren eta immaterialaren kontu desberdinetan izandako mugimenduak honako hauek izan dira:

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilgetu Ukiezina	42.790,26	28.181,41	---	70.971,67
Ibilgetu Materiala	526.884,79	388.948,28	---	915.833,07
IBILG. GUZTIRA:	569.675,05	417.129,69	---	986.804,74
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilg. Ukiez. Akz. Am.	6.367,29	12.857,69	---	19.224,98
Ibilg. Mater. Akz. Am.	52.507,35	87.232,93	---	139.740,28
AMORTIZ. GUZTIRA:	58.874,64	100.090,62	---	158.965,26
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
K.B.G. Ibilg. Ukiez.	36.422,97	-----	-----	51.746,69
K.B.G. Ibilgetu Materiala	474.377,44	-----	-----	776.092,79
K.B.G. GUZTIRA:	510.800,41	-----	-----	827.839,48

Jabier Larranaga Garmendia jauna
Presidentea

2019ko abenduaren 31n amaitutako ekitaldian ibilgetu materialaren eta immaterialaren kontu desberdinetan izandako mugimenduak honako hauek izan dira:

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilgetu Ukiezina	22.990,00	19.800,26	---	42.790,26
Ibilgetu Materiala	79.438,57	447.446,22	---	526.884,79
IBILG. GUZTIRA:	102.428,57	467.246,48	---	569.675,05
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
Ibilg. Ukiez. Akz. Am.	10,41	6.356,88	---	6.367,29
Ibilg. Mater. Akz. Am.	138,76	52.368,59	---	52.507,35
AMORTIZ. GUZTIRA:	149,17	58.725,47	---	58.874,64
	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Amaierako saldoa
K.B.G. Ibilg. Ukiez.	22.979,59	-----	-----	36.422,97
K.B.G. Ibilgetu Materiala	79.299,81	-----	-----	474.377,44
K.B.G. GUZTIRA:	102.279,40	-----	-----	510.800,41

6.Oharra.- Finantza-aktiboak

Administrazio Publikoarekin, kredituak, ez dira islatzen atal honetan.

Fundazioaren balantzearen epe luzeko aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2020ko abenduaren 31n, honako hau da:

Epe luzerako inbertsio finantzarioak

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Azkeneko saldoa
Fidantza alokairuak bulegoa	---	4.174,84	---	4.174,84
GUZTIOAK:	---	4.174,84	---	4.174,84

Fundazioaren balantzearen epe laburreko aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2020ko abenduaren 31n, honako hau da:

Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk:

Jabier Larranaga Garmendia jauna
Presidentea

	Hasierako Kitapena	Sarrerak	Irteerak	Azkeneko kitapena
Diruzaintza	116.655,92	1.735.764,37	928.583,00	923.837,29
GUZTIOAK:	116.655,92	1.735.764,37	928.583,00	923.837,29

Fundazioaren balantzearen epe luzeko aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2019ko abenduaren 31n, honako hau da:

Epe luzerako inbertsio finantzarioak

	Hasierako saldoa	Sarrerak	Irteerak	Azkeneko saldoa
Fidantza alokairuak bulegoa	---	4.174,84	---	4.174,84
GUZTIOAK:	---	4.174,84	---	4.174,84

Fundazioaren epe laburreko balantzearen aktiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa, 2019ko abenduaren 31n, honako hau da

Eskudirua eta beste aktibo likido batzuk:

	Hasierako Kitapena	Sarrerak	Irteerak	Azkeneko kitapena
Diruzaintza	984.309,20	72,70	867.725,98	116.655,92
GUZTIOAK:	984.309,20			116.655,92

7.Oharra.- Finantza-pasiboak

Administrazio Publikoarekin, zorrak, ez dira islatzen atal honetan.

Sozietatearen balantzearen pasiboko epe luzerako finantza-tresnak, kategorien arabera sailkatuak, honako hauek dira:

Zorrak eta epe luzeko ordaintzeko abiatzeak	2020	2019
Epe luzeko beste zor batzuk	550,00	550,00
GUZTIOAK	550,00	550,00

Epemuga 2022ekoa da.

Fundazioaren balantzearen pasiboaren finantza-tresnei buruzko informazioa honako hau da:

Jabier Larrañaga Garmendia jauna
Presidente

Zorrak eta epe motzerako ordaintzeko abiatzeak	2020	2019
Epe motzerako beste pasibo batzuk	39.236,34	20.300,05
Hainbat hartzekodun	187.952,81	24.774,94
Pertsonala	-	12.766,14
GUZTIOAK	227.189,15	57.841,13

